

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 41/2021 Foru dekretua, irailaren 7koa. Patata, azukre erremolatxa eta behi aziendaren ustiategiak ekoizteko laguntzen aldi baterako araubidearen oinarri arautzaileak onestea, Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1408/2013 (EE) Erregelamenduan ezarritako minimis araubidearen babesean, bai eta laguntza horien 2021erako deialdia ere

COVID-19ren birusa munduan zabaltzearen ondorioz deklaraturako pandemiak osasun publikoko nazioarteko krisi larri bat sortu du. Arrazoi horrengatik, alarma egoera deklaratu behar izan zen Espainia guztian, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez.

Horren ondorioz, garrantzi handiko neurriak hartu ziren, ekonomia eta gizarte jardueran eragina izan zutenak eta ondorio larriak izan zituztenak herritar guztien eguneroko bizitzan. Horrek guztiak oso eragin negatiboa sortu zuen gizartearen arlo zabaletan.

Krisi honen ondorio kaltegarriak bereziki larriak izan dira gizarte eta ekonomia sektore jakin batzuetan, eta beharrezkoa da Arabako Foru Aldundiak neurriak hartzea sektore kaltetuenak indarberritzeko eta bultzatzeko.

Nekazaritza eta abeltzaintza jarduera une orotan eta krisiaren hasieratik funtsezko jardueratzat hartu da eta ez da gelditu haren ekoizpen jarduera biztanleak janariz hornitzeko. Hala ere, zenbait ekoizpen sektoretan errenta galera handiak jasan dira beren merkaturatze zirkuituen aldaketa-rengatik eta biztanleen kontsumo ohitura jakin batzuk ezinbestean aldatu izanaren ondorioz.

Alarma egoera indarrean egon den aldian, eta are hartatik kanpoan ere, pertsonen mugikortasunerako eta bestelako murrizketa garrantzitsuak ezarri dira, merkataritza eta ostalaritza jarduerak izugarri mugatu dituztenak. Horrek neurri handi batean baldintzatu du abeltzaintza ustiategien jarduera, abeltzaintzako produktuak merkaturatzeko ohiko zirkuituak bestelakotuz eta biztanleen kontsumoa aldatuz. Horren ondorioz, prezioen beherakada garrantzitsuak izan dira zenbait produktutan, hala nola esnea eta behi okela.

Gainera, eragin hori are gehiago larriagotu da, ahal baldin bazen, aldi horretan jasan den nazioarteko ezegonkortasun ekonomikoagatik, zeinak esnearen eta okelaren prezioen beherakada eragin baitu Europako soberazko merkatuetan, eta beste herri batzuetako merkatuetarako okelaren irteera mugatu. Horrek guztiak Arabako behi azienden ustiategien diru sarrerak murriztu ditu oso neurri garrantzitsuan, eta arriskutan jarri du haietako askoren bideragarritasuna.

Pentsuen garestitzeak, batez ere zerealak, artoa eta soia bezalako lehengaien prezioen gorakadagatik, zenbait herriren eskaria handitzeak edo kontrako klimatologiaren ondorioz zereal ekoizle handienentzako igurikimenak gutxitzeak eraginda, are gehiago okerragotu du behi abeltzaintzaren emaitzen kontua, hura galera egoera batera eramateraino, prezioen igoera hori bezeroekiko kontratuetan jasanarazi ezinik.

Beste alde batetik, erremolatxa eta patata izan dira aspaldidanik Arabako lurraldeko urteko labore ureztatu garrantzitsuenak.

Foru Gobernu Kontseiluak, urriaren 20ko 34/2020 Dekretuaren bidez, onetsi zituen patata eta azukre-erremolatxa ekoizleentzako eta ardi eta ahuntz azienden ustiategientzako laguntzen aldi baterako araubidearen oinarri arautzaileak. Horrek lagundu egin zuen beren maneian labore horiek zeuzkaten ustiategiek COVID-19ren agerpenarengatik jasandako merkatu bestelakotze larriak arintzen. Hala ere, haren barruan ez zen jaso behi abeltzaintzaren sektorea, adierazi den bezala berak ere eragina jaso badu ere.

Kontuan izanik patata eta erremolatxa sektoreen egungo egoera, bai eta behi abeltzaintzarena ere, ez baitira bere onera etorri, egokitzen jotzen da berriz ere 2021ean labore horietarako eta behi abeltzaintzaren sektorerako deialdi bat zabaltzea. Laguntza hauek arautzen dituzten oinarriak egokiro interpretatu eta aplikatzeko garaian, operatiboagoa da dekretu berri bat onestea, proposatutako aldaketa guztiak testu eguneratu batean biltzen dituen, gaur egun indarrean dagoena aldatzea baino.

Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1408/2013 EE Erregelamenduan ezarritako minimis araubidearen babespean daude laguntza hauek. Esandako araubideak 20.000,00 eurora mugatzen du onuradun batek 3 urteko aldian laguntza horietatik jaso dezakeen kopurua.

Kontuan harturik laguntza lerro hori ez dagoela jasota Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onetsitako Dirulaguntza Plan Estrategikoan (otsailaren 2ko 40/2021 Erabakiaren bidez aldatuta), bidezkoa da hura aldatzea.

Bete dira xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan ezarritako izapide guztiak.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Azukre-erremolatxa eta patata ekoizleentzako eta behi azienden ustiategientzako laguntzen oinarri arautzaileak onestea, foru dekretu honen I. eranskinean ageri den testuaren arabera.

Bigarrena. Patata eta azukre-erremolatxa ekoizleentzako eta behi azienden ustiategientzako 2021eko laguntzen deialdia onestea, xehetasun hauen arabera:

– Eskeraek aurkezteko epea eta lekua: 15 egun baliodun, dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, leku hauetan:

– Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

– Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroak eta eskualdeetako nekazaritza bulegoak.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako batean.

Edonola ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek, egoitza elektronikoen berariazko izapidearen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/patata-eta-azukre-erremolatxaren-ekoizleentzako-eta-behi-aziendaren-ustiategientzako-laguntzak>), telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

– Ezarritako moduluak:

– Patata eta azukre-erremolatxa ekoizleentzako, 150,00 euro ha onargarri bakoitzeko.

– Esne behien abeltzaintzako (ustiategi mota: ekoizpena eta ugalketa; sailkapen zooteknikoa: esne ekoizpenerako ugalketa edo mistoa), modulua 30 eurotan ezartzen da abere bakoitzeko (2021eko apirilaren 30ean 24 hilabete baino gehiago dituen emea). Ez da ezartzen prima jaso dezaketen unitateen gehieneko kopururik.

– Behi inudeen abeltzaintzako (ustiategi mota: ekoizpena eta ugalketa; sailkapen zooteknikoa: haragi ekoizpenerako ugalketa), modulua gutxituz joango da abere kopuruaren tarte batetik hurrengora (2021eko apirilaren 30ean 24 hilabete baino gehiago dituen emea):

Lehenengo 75 abereak: 30 euro abere bakoitzeko.

76 - 150 abere: 25 euro abere bakoitzeko.

151 - 200 abere: 20 euro abere bakoitzeko.

Diruz lagundu ahal izango dira gehienez ere 200 abere, sailkapen zooteknikoa haragi ekoizpenerako ugalketa duten ustiategientzako.

– Gizentzeko txekorren abeltzaintzako (ustiategi mota: ekoizpena eta ugalketa; sailkapen zooteknikoa: gizentzea edo gizontokia edo txahalen aurrerako hazkuntza), modulua gutxituz joango da abere kopuruaren tarte batetik hurrerora (2021eko apirilaren 30ean 6 hilabete baino gehiago eta 24 hilabete baino gutxiago dituen aberea):

Lehenengo 100 abereak: 30 euro abere bakoitzeko.

101 - 250 abere: 20 euro abere bakoitzeko.

251 - 600 abere: 15 euro abere bakoitzeko.

Diruz lagundu ahal izango dira gehienez ere 600 abere, sailkapen zooteknikoa gizentzea edo gizontokia edo txahalen aurrerako hazkuntza duten ustiategientzat.

Nolanahi ere, nekazaritza ustiategi batean sailkapen zootekniko bererako hainbat ekoizpen unitate daudenean, batera konputatuko dira unitate horietako abere guztiak. Halaber, ustiategi batek sailkapen zootekniko desberdinak dituenean, edo behi abeltzaintzaren jarduera patata edo erremolatxa lantzearekin bateratzen duenean, jarduera bakoitzagatik dagokion laguntza eskatu ahal izango du, minimis erregelamenduan ezarritako mugekin.

– Kreditu erreserbak, 787.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastu aurrekontuko 40.1.00.47.00.479.00.03 partidaren kontura ("A plana – Nekazaritza ustiategiei laguntzeko neurriak"). Zorpekinaren erreferentzia: 21.1.21.105.3000/000.

Kreditu horiek munta gehigarriekin handitu ahal izango dira, hasieran gordetako zenbateko berdinez gehienez ere, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onetsitako Dirulaguntza Plan Estrategikoaren eranskina (otsailaren 2ko 40/2021 Erabakiaren bidez aldatua), eta haren barruan sartzea xedapen honen eranskinean ageri den edukia.

Xedapen indargabetzailea. Indargabetuta geratzen da Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 20ko 34/2020 Foru Dekretua.

Azken xedapenetako lehenengoa. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 7a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

I. ERANSKINA

1. artikulua. Xedea

1.1. Foru dekretu honen xedea da azukre-erremolatxa eta patata ekoizleentzako eta behi azienden ustiategientzako laguntzen aldi baterako araubidea arautzeko oinarriak ezartzea.

1.2. Laguntza hauek Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1408/2013 (EE) Erregelamenduan ezarritako minimis araubideari lotuta daude. Aipaturiko erregelamendua Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua nekazaritzako ekoizpenaren sektoreko minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da, eta Batzordearen 2019ko otsailaren 21eko 2019/316 (EB) Erregelamenduak aldatu zuen.

2. artikulua. Onuradunak

2.1 Oro har, dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradun izan daitezke Arabako Lurralde Historikoan dagoen nekazaritzako ustiategi baten titular diren eta behi aziendak eduki edo patata nahiz erremolatxa lantzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

2.1.1 Gizarte Segurantzako ordainketak egunean izatea.

2.1.2 Zerga betebeharrak guztien ordainketak egunean izatea.

2.1.3 Onuraduna Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak izapidetutako zehapen edo itzulketa prozedura batean ez egotea.

2.1.4 Administrazio zehapenik edo zehapen penalik ezarrita ez izatea sexuaren ziozko diskriminazioa eragin izanagatik, eta debekurik ez izatea emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen zioz (4/2005 Legea, otsailaren 18koa).

Sozietate zibilaren, ondasun erkidegoaren edo titulartasun partekatuen kasuan, ustiategiaren titularraz gain, gainerako bazkideek ere egiaztatu beharko dute 2.1.1. atala.

Deialdi honetatik kanpo daude enpresa publikoak edo kapital publikoa partaide dutenak.

2.2 Azukre erremolatxa eta patata ekoizleek urtero egin beharko dute eskabide bakarra Araban. Bertan, patata eta erremolatxa landatutako lursail guztiak agertu beharko dira eta, gutxienez, 2 ha-ko azalera agertu beharko da eskaera bakoitzeko.

2.3 Gainera, azukre-erremolatxa ekoizleek azukre-erremolatxari lotutako laguntzaren onuradun izan beharko dira, abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuaren 46. artikulua 2015etik aurrera nekazaritzarako eta abeltzaintzarako zuzeneko ordainketak eta beste laguntza araubide batzuk aplikatzeaz diotenari jarraituz eta ordainketen eta landa garapenerako ordainketen kudeaketaren eta kontrolaren inguruan xedatutakoari jarraituz.

2.4 Behi azienden ustiategiek, aurtengo apirilaren 30ean, ondoko hau baino gehiagoko errolda izan beharko dute:

– Esne behien abeltzaintzako, 24 hilabete baino gehiagoko 20 eme ugaltzaile ekoizpen eta ugalketako ustiategietan, sailkapen zooteknikoa: esne ekoizpenerako ugalketa edo mistoa.

– Behi inudeen abeltzaintzako, 24 hilabete baino gehiagoko 30 eme ugaltzaile ekoizpen eta ugalketako ustiategietan, sailkapen zooteknikoa: haragi ekoizpenerako ugalketa.

– Gizentzeko txekorren abeltzaintzako, 6 eta 24 hilabete arteko 30 abere ekoizpen eta ugalketako ustiategietan, sailkapen zooteknikoa: gizentzea edo gizentokia edo txahalen aurre-rako hazkuntza.

3. artikulua. Laguntzen era eta zenbatekoa

3.1 Itzuli beharrik gabeko dirulaguntza batean datza laguntza, eta haren modulua eta prima jaso dezaketen unitateen gehieneko kopurua, holakorik badago, laguntzaren deialdian ezarriko dira.

3.2 Erremolatxa eta patata ekoizleentzako, modulu bat ezarriko da, hektareako eurotan.

Ordainketarako, kontuan edukiko dira dabilen urteko eskabide bakarrean erremolatxa, eriteko patata edo jateko patata bezala deklaraturako lur guztiak.

3.2 Behi azienden ustiategientzat, deialdian zehaztuko den egunean edo egunetan ustiategian dauden aberekin loturiko modulu bat ezarriko da.

4. artikulua. Dirulaguntza emateko eta ordaintzeko prozedura

4.1. Laguntzak emateko prozedura lehia araubidean izapidetuko da, eskaera aurkeztu eta gero. Hala eta guztiz ere, laguntza hauen xedea kontuan hartuta, ez da balorazio irizpiderik ezarri eta hainbanaketa egin behar da baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei gehieneko kopurua emateko behar besteko kreditu erreserbarik ez balego.

Hala izatekotan, zenbatekoak proportzionalki murriztuko dira, dagoen kreditu erreserba kontuan hartuta.

4.2 Laguntzak eman eta berehala ordainduko dira.

5. artikulua. Eskaerak aurkezteko lekua, epea eta modua

5.1. Laguntzen deialdian, ondokoak jasoko dira:

– Laguntza eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

– Aurrekontu partida eta gordetzen den kreditua.

– Oraingo deialdirako ezarritako ordainketa moduluak eta prima jaso dezaketen unitateen gehieneko kopurua, halakorik badago.

5.2. Laguntza eskabidea inprimaki normalizatuan aurkeztu behar da (II. ERANSKINA).

6. artikulua. Izapideak, ebazpena eta jakinarazpena

6.1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, azukre erremolatxa eta patata ekoizleei lotutako espedienteak Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuak izapidetuko ditu. Behi azienden ustiategiei lotutako espedienteak Abeltzaintza Zerbitzuak izapidetuko ditu, eta Kide Anitzeko Balorazio Organoak proposatuta, foru-organo egokiak ebatziko ditu, indarrean dagoen araudiaren arabera. Haren ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari. Ebazpen horren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hura arautzen duen araudiaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jartzeko aukerari kalterik egin gabe.

6.2. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearena) 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, gehienez ere sei hilabete egongo dira prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igarota, esanbidezko ebazpenik hartu eta jakinarazi ez bada, ulertu behar da eskaerari ezezkoa eman zaiola, administrazioaren isiltasunez.

6.3. Arabako Foru Aldundiak egiaztatuko du administrazio betekizunak betetzen diren. Eskaeran akatsak daudela, eskabidea osorik bete ez dela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, eskatzaileari jakinaraziko zaio, eta hark 10 egun balioduneko epea edukiko du eskatutako agiriak aurkezteko, jakinarazpena egiten zaion egunetik aurrera zenbatuta, larunbatak aintzat hartu gabe. Agiriak adierazitako epearen barruan aurkeztu ezean, eskaera iraungi eta artxibatu egingo da.

Arestian aipaturiko baldintzetako bat bete ezean, laguntza gozatzeko eskubidea galduko da eta jasotako dirua itzuli behar da, eta harekin batera, jasotako zenbatekoek sortutako legezko korrituak ere. Gainera, indarreko arautegiaren arabera bidezkoak diren egintzak ere abiarazi ahal izango dira.

7. artikulua. Egiaztatzea eta ikuskatzea

Nekazaritza Sailak beharrezkoak diren egiaztapenak eta ikuskapenak egingo ditu, ustiategi onuradunei eskatzen zaizkien baldintzak betetzen direla egiaztatzeko; besteak beste, eskatzailea Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin egunean dagoela egiaztatzeko.

Laguntza eskaera aurkezteak berekin dakar eskatzaileak Nekazaritza Sailari baimena ematea zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria zuzenean eskuratzeko. Dena den, eskatzaileak berariaz adierazita uka dezake baimen hori, eta berak aurkeztu beharko ditu eskakizun horiek betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

8. artikulua. Kide Anitzeko Balorazio Organoa

Honako hauek izango dira Kide Anitzeko Balorazio Organoa osatzen duten pertsonak edo haiek eskuordetutakoak:

- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren burua.
- Administrazio Kudeaketa Atalaren burua.
- Abeltzaintza Zerbitzuaren burua.

9. artikulua. Bateragarritasuna

9.1. Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio batzuek helburu bera betetzeko ematen dituztenekin.

9.2. Betiere, aurreko paragrafoan ezarritako bateragarritasuna gorabehera, 2013ko abenduaren 18ko Kontseiluaren 1408/2013 EE Erregelamenduan (2019ko otsailaren 21eko 2019/316 EB Erregelamenduak aldatu zuen) ezarritako minimis araubidearekin bat etorritik, minimis neurrien babesean emandako laguntzek ezin dute onuraduneko 20.000,00 euro baino gehiago egin hiru urtean. Hala gertatuz gero, murriztu egingo dira laguntzak, gehieneko muga ez gainditzeko.

10. artikulua. Ondorioak eta onuradunen betebeharrak

Foru Dekretu honetan jasotako laguntzen onuradunek ondoko hauetan ezarritako araudiaren pean egongo dira: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzena, azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzen Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako arautegi aplikagarria.

Halaber, behartuta daude Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak eta eskumena duten beste organo guztiek eskatzen duten informazio guztia ematera.

11. artikulua. Laguntzak berraztertzea

Laguntza bat emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, berriro aztertuko da haren zenbatekoa.

12. artikulua. Itzulketa eta zuzenketak

Laguntzaren xedea betetzen bada, baina dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, hura emateko ebazpena ere aldatu ahalko da.

Onuradunak betetzen ez baditu Foru Dekretu honetan hartutako konpromisoak edo/eta Foru Dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak eta xedea, edo laguntza eskuratzen badute horretarako bete behar diren baldintzak bete gabe, galdu egingo dute emandako laguntza jasotzeko eskubidea, eta artean diru kopururen bat jaso badute, Arabako Foru Ogasunari itzuli beharko diote nahitaez, aplikatu beharreko legezko interesak gehituta. Horrek guztiak ez ditu eragozten bidezko diren egintzak, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

Itzulitako zenbatekoak zuzenbide publikoko diruzko sarreratzat joko dira, legez dagozkion ondorioetarako.

Nekazaritza Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez xedatuko da laguntza guztia edo zati bat itzultzea edo haren zenbatekoa edo ordainketak murriztea, ikuskapen edo kontrol txostena aztertu, itzultzeko edo murrizteko proposamena egin eta onuradunari entzun ondoren.

Dirulaguntza osoa edo haren zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan, jasotzen diren arau hausteengatik zehapen prozedura abiarazi ahal izango da.



II. ERANSKINA

MINIMIS LAGUNTZAREN ESKABIDEA

ERREMOLATXA-PATATA BEHI-AZIENDA

Nekazaritzako ustiapenaren zk.:	<input type="text"/>	NAN/IFZ:	<input type="text"/>
Izen-abizenak:	<input type="text"/>		
Helbidea:	<input type="text"/>	Erakundea:	<input type="text"/>
Udala:	<input type="text"/>	P.K.	<input type="text"/>
Ordezkarria (izen-abizenak):	<input type="text"/>		
NAN/IFZ:	<input type="text"/>	Telefonoa:	<input type="text"/>

ADIERAZTEN DUT:

Aurten eta aurreko bi urteetan, minimis laguntzen araubidea dela eta:

- Ez dudala dirulaguntzarik jaso edo Arabako Foru Aldunditik jaso ditut BAKARRIK.
 Minimis laguntzak jaso ditudala (taula osatu behar da).

Data	Erakundea	Azalpena	Zenbatekoa

-Itzultze, edo zehatze prozedura baten eraginpean ez nagoela.

-Ez dudala laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzeko aukera ukatzen didan zehapen administratiborik edo penalik, ezta horretarako ezgaitzen nauden legeko debekurik ere, sexu-bereizkeriagatiko debekua ere kontuan hartuta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoarekin bat etorritz.

-Aurreko datu guztiak egiazkoak direla, eta konpromisoa hartzen dudala datuak egiaztatzeko behar diren ziurtagiriak aurkezteko, bai eta, hala badagokio, dagozkion egiaztapenak onartzeko ere, eta agintaritzaren eskudunak egiten dituen kontrolak erraztuko ditudala, laguntza emateko baldintzak egiaztatzeko helburuz.

- Agintari eskudunek eskatuta, bidegabe kobratutako laguntza itzultzea.

BAIMENA EMATEN DIOT

- Nekazaritza Zuzendaritzari, laguntza izapidetu eta ordain dezan behar den informazio guztia biltzeko, bai eta eskatzen diren baldintzak betetzen diren ebaluatzeko ere (Ogasunaren/Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean izatea).

.....(e)n,(e)koaren(e)(a)n.

Eskatzailearen sinadura:

NAN:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) jasotakoa betetzeko xedearekin, jakinarazten dizugu zuk ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko nekazaritza ustiatzearen titularen fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamenduak Nekazaritza ustiatzearen laguntzak eta inbertsioak kudeatzeko egiten dira, baita nekazaritza jardueren erregistroa kudeatzeko ere. Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan. DBEOk onartzen dituen eskubideak, hau da, datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, aurka egin eta mugatzekoak, egikaritu ahaliko dituzu. Horretarako, nahikoa duzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Bulegora (Probintzia plaza, 5. 01001, Gasteiz, Araba) joatea. Argibide gehiagorako:

<http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>